

INFORMAZIOA

6 LARUNBATA - 12.00

Antzara Eguna

Harkaitz Cano eta Adur Larrea

1984ko azaroaren 20an, Santi Brouard tiroz hil zuten bere pediatria kontsultan. Julian Sancristobal Espainiako estatuko Segurtasun idazkariak agindua eta dirua eman zion Rafael Masa poliziarri, eta horrek Luis Morcillori eta Rafael Sanchez Ocañari ordaindu zien hilketagatik. Brouarden heriotzak zirrara handia eragin zuen Euskal Herrian. HASI alderdiko lehendakaria, HBko mahai nazionaleko kidea, Bilboko alkateordea, parlamentaria, mediku pediatra... Bere karisma eta konpromisoagatik, Euskal Herriko hainbat familia politikotan itzal handia izan zuen Brouardek. Horiekin batera, politikari lekeitiarraren beste ezaugarri ezezagunago batzuk ere jaso ditu komiki honek, adiskide eta mediku hurbila, txantxazalea, irakurle amorratua eta euskaltzale petoa ere izan baitzen. Horrela, Adur Larreak eta Harkaitz Canok fikzioaren bidez lortu dute Santi Brouarden bizitzaren eta heriotzaren hariak biltzea, ekinbide publikoa eta bizitza pribatua jostea, iragana eta oraina lotzea, garai baten kontaketa bizia marrazteko.

10 ASTEAZKENA - 18.00

Monumentuak, hilotzak eta hondakinak. Memoriaren inguruko borroka XX. eta XXI. mendeetan Euskal Herrian

Josu Santamarina

"Oraina kontrolatzen duenak iragana kontrolatzen du... Iragana kontrolatzen duenak etorkizuna kontrolatzen du."

Memoriaz hitz egiten da, baina, ziurrenik "memoria-erregimen" delakoez hitz egin beharko genuke. Izan ere, George Orwellek "1984" nobelan egindako baieztapenak denborari eta memoriari buruzko funtsa erakusten du: boterea.

Memoriak iraganaren kontrola (edo kontrolatzeko nahia) suposatzen duen heinean, etorkizunari buruzko proiektzioen kontrola da ere. Gauzak horrela, agente politiko ezberdinek -estatuak bereziki- memoria-erregimen zehatzak inposatzen dituzte, baita horiei lotutako dispositibo materialak ere. Monumentuak, kasu.

Monumentuak erregimenak gogoratzeko erabiltzen dituen tresnak dira. Baina, alderantziz ere planteatu daiteke: zer da memoria-erregimenek ahazten dutena? Zeintzuk dira erregimenaren hilotzak eta hondakinak?

Kasu honetan, Euskal Herrian XX. eta XXI. mendeetan izan diren (eta diren) memoria-erregimenez eta horien baliabideez mintzatuko gara. Testuinguru hurbil honetan, gainera, gai hau lantzeko kontzeptu ospetsua azalera da: "errelatoaren bataila" delakoa.

13 LARUNBATA - 17:00

Memoria e impunidad. La lucha por la memoria en Euskal Herria.

Martxelo Alvarez eta Lander García

Sinopsia/aurkezpena

17 ASTEAZKENA - 18.00

Regino Sorozabal. Musika eta errepresioa Guda Zibila eta Frankismoan

Karlos Turrillas

Regino Sorozabal Donostian jaio zen 1900. urtean. 25 urte zituela musikak Gasteizera ekarri zuen eta orduz geroztik bertan bizitzea erabaki zuen. Musikari bezala XX. mende hasierako Gasteizko mugimendu kulturala bizi izan zuen, baita Frankismoak eragindako errepresioa ere. Hitzaldi honek Gasteizko Alde Zaharrean murgilduko gaitu, bertan bizi ziren pertsonak, lekuak edo doinuak ezagutzuz, eta nola ez, Gasteizen bizi ziren bizilagunekiko errepresio frankista. Reginoren historia bizilagun baten historia da, auzo baten historiaren pasarte polit bezain zakarra.

20 LARUNBATA - 12:00

Euskal lagile andreak: lana, bizi estrategiak eta borroka XX. mendean zehar.

Oiane Balero

Atzera begiratzen dugu gaurko egoera ulertzeko eta etorkizunari aurre egiteko.

Kapitalismoak euskal langile andreen azpiratze eta desjabetze prozesua areagotu zuen: etxea, lurra eta ekoizpen bitartekoak ostu zizkien eta sexuaren arabera lan banaketa eta jabetza-botere pribatuaren antolaketa ezarri. Gorputzaren gaineko kontrola kendu zien eta izaera bera ukatu zien, langile edota euskal izaera, baita sexu identitatea ere.

XX mendean zehar, langile andreek erantzun irmoa eman zioten azpiratze/desjabetze prozesuari: grebetan, sufragioaren aldeko aldarrikapenetan, gerra edo herri borroka ugarian.

Borroka emaitza arrakastatsuak izan ditu. Nabarmena da euskal langile andreen zapalkuntzaren kontzientzia hartu izana, nabarmenak egindako urratsak edota lortutako autonomia ekonomikoa, askatze prozesurako ezinbestekoa. Hala ere, zapalkuntzaren oinarriak sendoak dira eta askatasunerako bidea luzea.

21 IGANDEA - 17:00

Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa

80ko hamarkada hasieran mugimendu antinuklearra puri-purian zegoen nazioartean, eta baita Euskal Herrian ere. Kostaldean eraikitzearen ziren hiru zentrez gain (Lemoiz, Ea-Ispaster eta Deba), Arguedasen laugarren bat egiteko asmoa zegoen. Horren aurka

protestatzeko, mobilizazioak antolatu ziren Tuteran. Gladys del Estal Ferreño Tuterara joan zen, baina ez zen itzuli. Manifestazio baketsu hartan, Guardia Zibil baten tiroak hil zuen. Film honek, Gladysen gertakariaren harira, garaiko gizartearen onespina lortu zuen mugimendu sozialaren erretratu bat egin nahi du.

24 ASTEAZKENA - 18.00

El proceso que hizo tambalearse al franquismo. Burgos 1970

Amparo Lasheras

El Proceso de Burgos constituye un hito en la memoria colectiva de Euskal Herria y en la historia política y social de los últimos 50 años. Con este juicio, el franquismo intentó criminalizar y condenar la lucha de ETA y del pueblo trabajador vasco en favor de la independencia y de la libertad. Sin embargo, no lo consiguió. El sumarísimo consejo de guerra militar y fascista, además de legitimar la lucha de ETA, supuso un altavoz internacional para la liberación nacional y social de Euskal Herria y dejó al descubierto la cara más cruel de la dictadura franquista. Esta realidad la expresó con claridad el periódico francés *Le Nouvel Observateur*, que el 20 de diciembre de 1970 tituló en portada: “Los 16 mártires de Burgos hacen tambalearse la dictadura”. Cincuenta años después la historia continúa absolviendo a los hombres y mujeres que Franco sentó en el banquillo y a la memoria de su lucha militante.

28 IGANDEA - 17:00

Pasaiako Badia

1984. La Policía Nacional, después de detener ilegalmente a Rosa Jimeno y torturarla, la obliga a poner una cita con sus compañeros de los Comandos Autónomos Anticapitalistas que están en Iparralde. En las rocas de la bahía de Pasaia, la tienen atada de los pies. Cuando hace la señal se acerca la zodiac que viene desde Ziburu. Se oyen cientos de disparos.

Según explicaría después Joseba Merino, Pedro Mari Isart y Jose Mari Izura morirán en el primer tiroteo. Él, Rafa Delas y Dioni Aizpuru serán detenidos después. Ve cómo fusilan a Delas y Aizpuru. El médico forense Paco Etxeberria contabiliza 113 orificios de bala a los cuatro cuerpos. La versión oficial habla de un enfrentamiento.

2016. El Juzgado de Donostia, aunque reconoce que haya indicios de delito, archiva el caso definitivamente. No han podido identificar quiénes cometieron los delitos. Los familiares afirman que llevarán el caso hasta Estrasburgo.

Han pasado 32 años desde aquellos fatídicos sucesos. Con este documental se quiere socializar el caso y encender un rayo de luz en la bahía.